

3. Atala:

- Ilargi! Lamia bat zara! – Maia guztiz harrিতuta zegoen. Ez zuten Ilargiren familiari buruzko berri askorik, izan ere, Ilargi, haritz zaharreen topatzen zuten beti.

- Hala da bai... - burumakur zihoan lamia gaztea. Ilargiren amaren, Intzaren, errieta entzun ondoren honen atzetik zihoazen hiru lagunak.

- Zergatik ez diguzu lehenago esan? – Galdetu zuan orduen Lurrek. Intzaren errieta entzun zutenetik isil xamar zegoen mutila.

- Lotsa apur bat ematen dit. Lamiok erreketan eta putzuetan ibiltzen gara beti, igerian, saltoka... Baina niri urak... beldurra ematen dit.

Maia eta Lur harrিতuta gelditu ziren. Ez zuten sekula pentsatu urak beldurtzen zuen lamiarik egon zitekeenik ere.

Laster heldu ziren Ilargiren etxera eta atseden hartu zuten bertan. Intzak, beren gurasoei abisua pasako ziela esan zien Lur eta Maiari eta lasai gelditu zitezkeela bertan lotan.

“Lasai-lasai ere ez nago bada...” pentsatu zuen Lurrek.

- Nik ekaitzei diet beldurra eta zuk urari... - Hasi zen Maia.

- Eta nik errieta eta eztabaidei... - Ausartu zen Lur azkenean.

- Ikusten? – Jarraitu zuen Maiak – guztiok diogu beldurra zerbaiti. - Zuen ama ere etxe inguruan falta zinelako beldurtu da.

Ilargi lasaitzen hasi zen lagunen animoekin eta erreka ertzean eseri zen. Ordurako ez zen ekaitzen ezelako arrastorik eta giro epela zen nagusi lamien errekan.

- Guk lagunduko dizugu urari beldurra galtzen – Bota zuen Maiak eta uretara sartu zen arropak kenduta. Lurrek ere gauza bera egin zuen.

- Ez zaizue arraroa iruditzen? – Hasi zen mutila galdezka – Gure beldurrak bata bestearen ondoren hain agerian azaltzea ez da ohikoa... Ez diot guzti honi susmo onik hartzen...

